

Ankulegiren XXV. Jardunaldia,

2023ko martxoaren 10ean ospatuko da, eta goian aipatutako ardatz tematiko nagusietako batzuk jorratzea du helburu. Honako alderdi hauetako batzuk (edo beste batzuk) barnebidu eta zabalduko dituzten komunikazioak bidaltzera gonbidatzen zaituztegu:

(1) etikaren antropologiaren problematizazioak eta eztabaida teoriko eta kontzeptualak, hala nola etikaren unibertsaltasun ontologikoari buruz, edo honek arlo sozial, kultural eta politikoein duen harremana edota bereizketari buruz;

(2) gogoeta zehatzagoak

(a) gaur egungo eztabaida sozial, kultural, politiko edo ekonomikoen azpian dauden inplikazio etiko edo moraleri buruz (adibidez, migrazioei, pandemia garaiko praktika sanitarioei edo gerrei dagokienez)

(b) kontsiderazio etikoetan gizakiaren -eta gizakiz bestekoen- lekuari buruzko eztabaiden inguruan (adibidez pertsonen, animalien, landareen, naturaren edo hiri-ingurunearen subjektibotasun etikoari buruz)

(3) Etnografiak, aspektu berritzaileak edo konplexuak aurkezten dituztenak, ziurgabetasunen garaiotan praktika etnografiko etiko batek dakarrenari buruz (eta, adibidez, kolektibo edo instituzioekin praktika etnografikoan sortutako gatazka etikoak biltzen dituztenak, edo landa eremuan aurkitutako dilema etikoei irtenbide berritzaileak ematen dizkietenak).



Proposamen horiek euskaraz, gaztelaniaz edo frantsesez bidali beharko dira

<jardunaldiak[arroba]ankulegi[punto]org> helbide elektronikora, 2023ko urtarrilaren 15a baino lehen, eta honako atal hauek izan beharko dituzte:

- Proposamenaren mota: komunikazioa, posterra, tailerra, ikus-entzunezkoa edo beste formatu batekoa.
- Izenburua: titulu nagusia eta azpititulua, hala badagokio.
- Egilea: izen-abizenak, posta elektronikoa, diziplina eta erakunde-filiazioa.
- Deskribapen laburra: proposamenaren ideia nagusiarri buruzko sinopsia. Jardunaldia hainbat komunikabidetan iragartzeko erabiliko da. Gehienez 30 hizekoa.
- Deskribapen luzea: proposamenaren xedearren, metodoaren eta inplikazioen deskribapen laburra. Lana ebaluatzeko eta, hala badagokio, jardunaldiaren programarekin batera eta webgunean iragartzeko balioko du. Gomendatutako luzera: 150-200 hitz.
- Hitz-gakoak: 2-3 hitz bakarrik.

Jardunaldia San Telmo Museon (Donostia) ospatuko da. Otsailaren hasieran, proposamenen egileekin harremanetan jarriko gara proposamenak onartu edo ukatu diren jakinarazteko.

ANKULEGIK gonbidapena luzatzen dizue parte hartzaileei zuen artikulu-proposamenak bidal ditzazuen **aldizkaria@ankulegi.org** helbidera. Baldintza formalak eta argitaratzeko arauak hemen aurki daitezke: **<https://ankulegi.hypotheses.org/nola-argitaratu>**